

EUSKARAZKO KAZETARITZAREN LEHEN KONGRESUA EUSKARA ETA EUSKAL HERRI MODERNOAREN LEGAMIA

Ez da inor bilago, abaztua dena baino. Gogoaz eta ametsaz gain ezer gutxi zutela bizkarrean, eta prentsa espainiarren nahiz diglosiko abertzalea izango zenaren begiratu zentsuratzailetik ihesean, *Anaitasuna*, *Zeruko Argia* eta *Goiz Argi* aldizkariak *euskal prentsaren urtea* izendatu zuten 1976. urtea. Ordutik hona, 30 urte joan dira ia-ia, eta euskarazko komunikazio-esparrua zazpiehunetik gorako berriemaileen kolektiboa izatera heldu da.

Hiru aldizkari haiek irekitako bide hartara, beste aldizkari batzuk, egunkariak (zaharra eta berria), irratiak, telebistak eta sareko guneak gehitu zaizkio apurka-apurka urte hauetan.

Asko da egin dena, baina gutxi ere izan daiteke, nola begiratzen zaion. Euskarazko prentsa bere bidea ari da garatzen, estereotipo zaharkituetatik urrunduta eta modernotasunaren itzaletara etorrira.

Kongresua errealitate eta ametsa

Beste guztien gainetik, kongresuaren antolaketak eta haren garapenak ezer islatu baldin badu esparruaren aniztasuna islatu du. Iritzi desberdinek, erakunde desberdinek eta amets desberdinek bat egin dute azaroko bilkura horietan. Prentsak, irratiak, te-

lebistak... jabego publikoak, jabego pribatuak, egunerokoek eta noizbehinkariak zita izan dute Ibaizabal errekaaren babesean.

Euskal Idazleen Elkarteak, Udako Euskal Unibertsitatea, Topagunea, Berria eta Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza eta Ikus-entzunezkoen Sailak izan dira antolaketa lanak euren bizkar hartu dituzten erakundeak. Laguntzaile moduan aritu dira *Argia, Bizkaia Irratia, Euskalerrria Irratia, Euskal Irratiak, Aldaketa hamasei eta Zabalik*. Babesle moldura, *Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta Bilbao Bizkaia Kutxa*.

2004ko azaroan, 9tik 12ra, lau egunez bildu dira Bilboko Euskalduna Jauregian *Euskarazko kazetaritzaren lehen kongresuko* partaideak. Kongresua bete-betea izan da. Goiz eta arratsaldeko saioetan, hizlari izan edo entzule izan, bederatzi t'erdietatik iluntzeko zazpi t'erdiak arte, berrehun lagun elkartu dira iraganaz hausnartzeko eta etorkizuna marrazten hasteko.

Batez ere, Euskarazko Komunikazio-esparruko hedabide jeneralistak izan dira kongresu honetako izarrak. Salbuespenak salbuespen, gai orokorreki buruzko informazioa eskaintzen duten hedabideak izan dituzte aztergai antolatzaileek eta partaideek. Aldiz, literatura, erlijioa, zientzia eta teknologia, pentsamendua, unibertsitate-gaiak, kirola... oro har *kazetaritza berezitu*ko aletzat jo izan ohi diren horien gaineko hausnarketa beste baterako geratu da.

Batetik, Euskarazko Komunikazioaren **definizioa** eta **diagnosia** egin nahi izan ditu kongresuak (ahuleziak eta indarguneak zehaztuz sektorez sektore). Alderdi horretatik lan handia eta erakargarria egin da kongresuan; txosten eta komunikazio interesgarri ugari izan dira arlo horretakoak. Beste batetik, Euskarazko Komunikazioaren **etorkizuna** zein eta zelakoa izan litekeen hausnartu gura izan du. Horretan ahulago aritu dira kongresuko kideak, bihar ateri ala euri izango den jakitea ez baita beti erraza. Eta azkenik, Euskarazko Kazetaritzaren **plangintza estrategikoa** edo *Liburu Zuria* izan litekeena fin-

katzen ahalegindu da kongresua. Duda barik, horretan geratu da motzen jarduna.

Kongresuak abiapuntu argi batetik egin du aurrera: *euskal komunikazio-esparrua euskaraz gauzatzen dena da* izan baita aldarri nagusia. Horrela definitu da lan-esparrua, argi eta zalan-tzetarako aukerarik gabe. Euskal komunikazioa euskaraz da, ez euskaraz eta erdaraz, euskaraz gauzatzen dena baizik. Euskaraz kontzebitu, euskaraz landu eta euskaraz gizarteratu. Horiek dira abiapunturako hiru ardatz estrategikoak, eredu elebidunetatik urrun.

Azken eguneko azken agirian irakur daitekeenez, *Euskal Herrian egin, nahiz kanpoan egin, bizkuntzak konformatzen du gure kazetaritza-jardueraren ezaugarri berezkoa*. Ildo horretatik, antolatzaileek aldarrikatu dutenez, *euskarazko komunikazioak gero eta zerbitzu osoago eta integralagoa eskaini nahi dio euskal komunitateari*.

Antolatzaileek adierazi dutenez, *gizarte-fenomeno gisa, zerbait modernoa den arren euskarazko gizarte-komunikazioa, gure iraganaren ondorengo gara. XIX. eta XX. mende-atariko kazetaritza-esperientzia historikoak hor daude, Euskal Herrian bezala kanpoan ere. Iparraldeko kazeten abalegin goiztiarra, Hegoaldeko gerra-garaiko abalegin erraldoia, eta trantsizio espainiarraren garaiko euskal prentsaren aldarri modernoa dira diogunaren lekuko garbi: "izan direlako gara"*. Kongresuak zorretan ikusi du bere burua euskarazko prentsa abian eta garabidean jarri duten hainbat eta hainbat eragile ezagunekin eta ezezagunekin. Euskarazko prentsa gaur ezer baldin bada, ahalegin indibidual eta ahalegin kolektibo askori zor zaio.

Elkarren ezagutza eta elkarren arteko konfiantza landu nahi izan dira kongresuan. Esparrua nortzuk osatzen duten, zelakoak diren horiek guztiak, noraino abia daitezkeen batera, ze jomuga antzekoak eraiki ditzaketen elkarlanean, ze zeru-marra amestu lezaken elkarren artean.

Kultura-aniztasuna aitzakiatzat hartuta, *kultura-mix* delakoaren menpe dauden produktuen aurrean, euskal kazetariak euskararen taula autozentratuta ekarri nahi izan dute euren irakurketa propioa. Etorkizun burujabea amestu dute kongresuan bildutakoek. Kalitatezko esparru beregaina igurikatu dute kongresuko lagunek.

Kongresu honek, azkenik, izan du erronka nabarmen bat: kongresu fundatzailea izatea, lehena izanik. Halako kongresuei dagokie esparrua definitzea eta finkatzea. Eta hala egin du honek euskal komunikazio-esparrua euskaraz gauzatzen dena legez definitzean. Autopertzeptzio-lan garrantzitsua da hori, batzuetan ondo baloratzen jakiten ez den arren.

Hala ere, ez da horretara soilik mugatu behar kongresu bat. Lehena izan, nahiz hamaikagarrena izan, kongresu batek etorkizunerako ateak ireki behar ditu, konpromisoak hartu, eta espektatibei erantzun. Geroak esango du horretan asmatu den.

Euskarazko kazetaritzaren leen kongresua

ONDORIO NAGUSIAK

Bilbo, 204-11-12

LEHENENGOA. Euskarazko kazetaritzaren munduak berebiziko aldaketak izan ditu azken hiru hamarkada hauetan. Dozena erdi /dozena bat profesional izatetik, 700dik gora berriemaileen kolektibo izatera igaro gara. Oso handia da mundu honek berezkoa duen indar sortzailea.

BIGARRENA. Euskarazko kazetaritzak izan duen garapena oso nabarmena da, baina agerian dira ahuleziak ere: egoera sozio-linguistikoa, merkatu txikia, behar baino eskaintza urriagoa... Gainera, mundu honek gehiegizko sakabanaketa bizi du eta ez du oraindik beregaintasunik lortu maila askotan.

HIRUGARRENA. Euskarak 800.000 hiztunera iristen ez den komunitatea osatzen du. Arazo asko eta asko hiztun-kopuru murriz horren ondorio dira. Edozelan ere, bermatu beharreko gizarte-erantzukizuna da informazioa euskaraz jasotzeko eskubi-

dea. Erkidego gisa, euskaldunontzat, **zer** estrategiko bat da euskarazko komunikazio-esparruaren etorkizuna. Gizarteak eta Administrazioek inplikazio aktiboagoa zor diote euskal komunitateari. Euskarazko kazetaritzaren mundua ezin da merkatuaren legeen pairuan utzi, eta horregatik ere, behar-beharrezkoa du erakunde publikoen diru-laguntza bidezko, arautu eta garbi bat. Euskarazko kazetaritza zerbait izatera heldu baldin bada, berton mamitu den elkarlanaren ondorioz izan da. Etorkizunari begira ere, elkarlan horrek berebiziko garrantzia izaten jarraituko du: sinergiak sustatu eta garatu behar dira, baita baliabideen erabileraren optimizazioa bilatu ere.

LAUGARRENA. Euskarazko kazetaritzak aurrera egingo badu, kalitatezko gutxieneko estandar batzuk bermatzen direlako izango da. Imajinario kolektiboaren sortzaile garen heinean, ekoizten eta igortzen ditugun edukietan ere jarri behar dugu ardura. Eduki horiek elkarbizitzaren bideratzaile eta euskal komunitatearen kohesio soziokulturalaren eragile behar dute izan. Kalitatezkoa behar du izan maila guztietan euskarazko komunikazioak: produktuen eraketan, ekoizpen-prozesuan, banaketa-sisteman eta erabiltzen den hizkuntza-ereduan ere.

BOSGARRENA. Zenbait kasu eredugarri alde batera utzita, kazetari euskaldunek ere lan-baldintza ez duinak pairatzen dituzte sarritan: lan-jardun amaigabeak, ordain-sari eskasak eta kontratu prekarioak. Kazetaritza-eredu duin, etiko eta beregaina lortzea helburu izanik, funtsezkoa da egoera horiek errotik ezabatzea.

SEIGARRENA. Euskaratik eta euskaraz sortu eta landutako publizitatearen sareak sustatu behar dira. Inon funtsezkoa bada administrazioen laguntza, publizitatearen eremuan da, dudarik gabe.

ZAZPIGARRENA. Euskararen komunikazio-esparruaren hedapena ez da soilik hedabideen egitekoa. Kazetari-lanaren lehengaia informazio-iturriak dira. Beroriek gobernatzen dute albistearen joan-etorria. Informazio-iturri euskaldunik gabe ezin dira albisteak euskaraz taxuz landu. Euskal Herrian dauden gizarte-eragile gehienek erdaraz pentsatu eta ekoizten dituzte euren jardun publikoak. Arlo horretan, politikarien erantzukizuna aipagarria iruditzen zaigu, gizarte baten ikono eredugarri diren heinean, kon-

promiso-maila handiagoa eskatu nahi diegu Kongresu honetatik bertatik. Kazetari euskaldunak ordu dezente ematen du egunero informazio-iturri erdaldunen idazlanak itzultzen. Albiste-iturrien euskalduntzea eskatzen du euskararen komunikazio-esparruaren garapenak.

ZORTZIGARRENA. Elkar elikatzen duten munduak dira gurean kazetaritza eta literatura. Sistema propio baten aldeko apustua da harreman emankor horretan sakontzea, kohesio soziokulturala helburu duen eredu baten alde ekinez.

BEDERATZIGARRENA. Espezializazioaren fenomenoak ez du etenik izan azken 30 urteotan. Zientzia eta ezagutzaren mundua abiada betean garatu da. Garapen horren ondorioetako bat da kazetaritza espezializatua. Aintzakotzat hartu beharko luke fenomeno hori ere euskarazko kazetaritzak.

HAMARGARRENA. Euskarazko kazetaritzak jomuga garrantzitsuak dauzka geroari begira. Horren adierazle garbiak dira Internet eta teknologia berriak. Mundu horietara egokitzeke egin dituen ahaleginak garrantzitsuak badira ere, oraindik asko falta zaio beregaintasuna lortzeko bidean euskarazko kazetaritzari. Bide horretan estrategiko deritzogu multimedia egitasmoak garatzeari.

HAMAIKAGARRENA. Euskarazko komunikazioaren erkidegoak bere burua ezagutu behar du, bere burua egokitu behar du abagune berrietara, bere esku hartu behar du etorkizuna marrazteko ahala. Kongresu honetan aipatu diren gabeziak zuzentzeko eta zedarritu diren egitasmoak garatzeko, plangintza estrategiko baten beharra dakusagu. Berori egiteko eta euskarazko kazetaritzak duen potentzialtasun osoa garatzeko, foro edo erakunde ireki eta iraunkor bat sortzeko konpromisoa hartzen dugu zuen aurrean.

Euskarazko Kazetaritzaren Lehen Kongresuko Batzorde Akademiko eta Antolatzailea.

Jose Inazio Basterretxea